



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

Neurriak hartu ditue Batzar Nagusiek egoera kezkarriari buelta emoteko

EHUko eta Basalaneke adituak: “Gernikako Haretxa bizi-bizirik dago, baina ahulduta dagoanez behar baino arinago egokitu da udagoienerako”

Gernikako Aretxaren egoera kezkarria ikusita, Bizkaiko Batzar Nagusiek presazko zenbait neurri hartzea erabagi dabe abuztuan, eukal askatasunen ikur dan Gernikako Batzarretxeko 28 urteko haretxa egonkortu eta bere egoerea hobatzeko. Zientzia eta Teknologia Fakultateko Landareen Biologia eta Ekologia Saileko eta Basalan basogintza-zerbitzuetako enpresako adituek azpimarratu dabe “arbolea bizi-bizirik dagoala, baina ahulduta” eta azaldu dabe gora-behera metereologikoagaitik eta ahulezi horregaitik udagoien-egoeran sartu dala behar baino arinago. Adituek esan dabe anilisiek erakutsi dabela arboleak ez daukala inguruan Armillarea Mellea onddorik, aurreko haretxaren bizialdiaren amaierera ekarri eban gaixotasuna hain zuzen be.

Batzar Nagusietako Lehendakaria kezkatuta azaldu da arboleak gaur egun daukan ahuleziagaitik. “Euskal askatasunen ikurra da Gernikako Arbolea, ehundaka eta ehundaka urte dituan ikurra, denboran zehar iraun dauena eta iraungo dauena, 2004an bertan sartu zan 28 urteko haretx horrek irudikatzen dauena. Izaki biziduna da, bai, baina ez da hazi guk nahi izango genduan bestean” esan dau Ana Madariagak, eta argitu dau hedabideen aurrean agertu gura izan dabela hitzegiteko “gai erabat tekniko bati buruz, inondik inora ez dana gai politikoa edo alderdikeriazkoa”.

Miren Duñabeita EHUko Landareen Biologia eta Ekologia Saileko irakasle titularrak azaldu egin ditu “sustraiak oxigenatzeko eta arbolearen metabolismoa hobatzeko” zeintzuk izan diran hartutako neurriak. Azaldu dau “oxigenorik ez izate horrek aldaketa fisikoak, kimikoak eta biologikoak eragiten dituala lur-zoruan, eta arbolearen hazkunde prozesuan kalte handia” ekarri dauela, “eta ganera, energia sortzeko gaitasuna gitxitu egiten da modu nabarmenean, eta elikagaiak eta ura sustraietatik hartzeko gaitasuna oztopatu egiten da. Horrek guztiorrek asko ahuldu dau arbolea eta arriskuan jarri da arbolearen biziraupena. Beraz, babes neurri moduan, eta neguari aurre egin ahal izateko, arboleak behar baino arinago gorde dau orrietako esnea”.

Hurrengo hilabeteetan hartuko diran neurriak zehaztu ondoren, Duñabeitia irakasleak esan dau “Gernikako Haretxaren kokagunea ez dala oso egokia (eraikinez eta porlanez inguratuta, hezetasun handiko leku ilunean) eta horrek erakutsi beharko leuskigula etorkizunean bertan egon daitezkan haretxek nekez iraun leikiela aurrekoek iraun daben beste. Beraz, aintzat izan behar dogu gutarikoen belaunaldi batek gaur egun Gernikako Batzarretxearen esparruan egon eta euskal askatasunen ikur dan Haretx Zaharraren ondorengo bat baino gehiago ezagutuko dauela”.

Bere aldetik, Kepa Txarterina Basalan basogintza-zerbitzuetako enpresako injeniari tekniko agronomo eta funtzionariok zehatz-mehatz zerrendatu ditu abuztuan egindakoak. Txarterinak



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

esan dau datorren neguan aztertu beharko dala zein dan Haretxaren kimetzen egoera eta arbolearen garapen begetatiboa dana dalako neurriak hartzea erabagi aurretik.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Juntas Generales toma medidas para mejorar su delicada situación

Expertos de la UPV y Basalan: “El Roble de Gernika está vivo, pero debilitado ha entrado prematuramente en el otoño”

Gernika, a 2 de septiembre de 2014.

La delicada situación del Roble de Gernika ha llevado a las Juntas Generales de Bizkaia a tomar este Agosto una batería de medidas urgentes para estabilizar y mejorar el estado de este ejemplar de 28 años de edad que representa en la Casa de Juntas de Gernika al milenario símbolo de las libertades vascas. Expertos del Departamento de Biología Vegetal y Ecología de la UPV/EHU y de la empresa de servicios forestales Basalan han subrayado que “el árbol está vivo, pero debilitado” y han explicado que, por las condiciones climatológicas y su deterioro, ha entrado prematuramente en el otoño. Los especialistas han puntualizado que los análisis realizados han descartado la presencia de hongos Armillaria Mellea en su entorno, enfermedad que causó la muerte del anterior roble.

La Presidenta de Juntas Generales ha mostrado su preocupación por el delicado estado del actual árbol. “Un milenario símbolo de las libertades vascas que permanece y permanecerá en el tiempo, hoy representado en este ejemplar de roble de 28 años que fue trasplantado en el 2005. Un ser vivo que no se ha adaptado y no ha crecido estos años como nos hubiera gustado” ha lamentado Ana Madariaga, al tiempo que aclaraba que la comparecencia ante los medios de comunicación pretendía transmitir un “tema estrictamente técnico, no político ni partidario”.

Miren Duñabeita, profesora del departamento de Biología Vegetal y Biología de la UPV-EHU, ha explicado las medidas adoptadas para “oxigenar las raíces y mejorar su metabolismo”. “La falta de oxígeno –ha resumido- origina numerosos cambios físicos, químicos y biológicos en el suelo que perjudican gravemente el crecimiento del árbol, pero además, reduce dramáticamente la producción de energía e impide la absorción de nutrientes y agua por las raíces. Todo ello ha debilitado mucho el árbol y pone en peligro su supervivencia. Por ello, y como medida de protección para evitar daños mayores y poder soportar el invierno, el árbol ha inducido la senescencia precoz de las hojas”.

Tras detallar las medidas que se tomarán en los próximos meses, la profesora Duñabeitia ha puntualizado que “en todo caso, la complicada ubicación del Roble de Gernika (rodeado de edificaciones y cemento, en una zona muy húmeda y sombría) debe llevarnos a ser conscientes de que en el futuro, los ejemplares que crezcan en ella, a diferencia del Árbol que fue sustituido en 2005, puede que no lleguen a ser centenarios debiéndose tener presente que el símbolo de las libertades vascas será representado en la misma generación de personas por más de un ejemplar de la estirpe del Roble Viejo, cuyos restos se conservan en la Casa de Juntas de Gernika”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por su parte, Kepa Txarterina, ingeniero agrícola y técnico de Basalan, ha pormenorizado los trabajos técnicos realizados con urgencia en Agosto. Txarterina ha situado en el próximo invierno el momento para analizar la situación de las yemas del Roble y su desarrollo vegetativo para la posterior toma de decisiones.